ASKE - Alfonso Sastre Kultur Elkartea
presenta

# ¿QUÉ REPÚBLICA?

## ASKEncuentros 2008.
## Sesiones de reflexión y debate

CENTRO CULTURAL
KOLDO MITXELENA - San Sebastián
**18, 19 y 20 de noviembre de 2008**

### Martes, 18 de noviembre de 2008 - 19.00h

**ALFONSO SASTRE**, *escritor. autor de obras teatrales, ensayísticas, poéticas y narrativas*

**ARNALDO OTEGI**, *filósofo, ex parlamentario, ex preso y ex portavoz de Batasuna*

*Alfonso Sastre se suicida*, de Alfonso Sastre
Lectura dramatizada de la obra teatral a cargo de la actriz Zutoia Alarcia y del propio autor, Alfonso Sastre, interpretándose a sí mismo

### Miércoles, 19 de noviembre de 2008 -19.00h

**ALIZIA STÜRTZE**, *escritora e historiadora especializada en Euskal Herria*

**CARLO FRABETTI**, *escritor y matemático*

**ELVIRA SOUTO**, *profesora de la Universidade da Corunha y Secretaria de EsCULcA*

*Emmanuel Kant azken egunak*, de Alfonso Sastre
(Traducción de Fito Rodríguez). Presentación de la traducción al euskara de la obra *Los últimos días de Emmanuel Kant*, original de Alfonso Sastre, traducida y prologada por Fito Rodríguez y publicada por *Artezblai*

### Jueves, 20 de noviembre de 2008 - 19.00h

**SANTI DUÑAITURRIA**, *economista, asesor en Comercio Exterior y escritor*

**ANA SANTOS**, *Dtra. en Medicina y militante de movimientos sociales y políticos en Portugal*

**ÁNGELES MAESTRO**, *Dtra. en Medicina, ex Diputada de Izquierda Unida y dirigente de Corriente Roja*

*Recital de Fermin Balentzia.* Canciones de sabor republicano

## ¿Qué república?

Periódicamente, a menudo coincidiendo con ciertos aniversarios cuya máxima significación suele ser su condición de múltiplo de diez (aunque si las ganas de celebrar aprietan también vale con que alcance a ser múltiplo de cinco), el tema de *La República* –así dicho, con esa individualización y determinación que un artículo como el "la" procura– salta a la palestra y durante unos días o semanas pasa a ocupar páginas en los medios escritos, minutos en los debates televisivos, espacio *exabruptal* (y perdón por el palabro) en las tertulias radiofónicas. En los momentos más señalados, ese despliegue viene acompañado incluso de tomos o fascículos coleccionables embolsados junto con los correspondientes suplementos dominicales. Eso suele querer decir que durante esos días o semanas se abre la veda y se nos autoriza a hablar sobre el republicanismo y a imaginar incluso espacios políticos potenciales que pudieran acogerse a dicha etiqueta.

Nosotros, miembros de ASKE (*Alfonso Sastre Kultur Elkartea*), por definición y elección rebeldes y en consecuencia reacios a los debates con *nihil obstat* y a fecha convenida, no necesitamos ni pretendemos acogernos a aniversario alguno, y menos aún al de una determinada experiencia política como fue la Segunda República española en la que ni de lejos todo fueron luces, pues también exhibió muchas y bastante oscuras zonas de sombra, para tratar de establecer un espacio de reflexión y debate que, de entrada, le retire a la mencionada experiencia vivida en la Península en la década de los 30 del pasado siglo el derecho a monopolizar el artículo determinado.

Pensar *en republicano*, aquí, en Euskal Herria, y ahora, en el siglo XXI, no tiene porque ser sinónimo de convertirse en reivindicador del mencionado período de la Historia del Estado español que sucumbió definitivamente tras la victoria en el 39 de los militares que habían dado su golpe en el 36; tampoco obliga a convertirse en postulante de una hipotética Tercera República de corte similar a la anterior. ¿Por qué no pensar, alternativamente, en una República vasca o imaginar cómo podría y debería ser un potencial Estado Vasco Republicano?

A lo que se ve, para hablar de *República* en este contexto no nos basta con los sustantivos, sino que si queremos pensar con amplitud y rigor necesitamos recurrir también a los adjetivos para conseguir identificar de la manera más precisa posible la esencia de las cosas en las que pensamos y a las que nos referimos, la conformación de los modelos políticos que pretendemos y estamos dispuestos a defender.

Para eso, para avanzar en esa identificación mediante la escucha y debate de distintas y valiosas reflexiones al respecto, reunimos esta vez, en la XIII edición de nuestros *ASKEncuentros*, a invitados como Arnaldo Otegi, ex-parlamentario y antiguo portavoz de Batasuna, Ángeles Maestro, dirigente de Corriente Roja y ex Diputada de Izquierda Unida; Alizia Stürtze, historiadora y escritora vasca especializada en Historia de Euskal Herria, Carlo Frabetti, escritor italiano afincado en Madrid desde hace años y veterano amigo e invitado de nuestra asociación, Santi Duñaiturria, economista y escritor vasco con numerosas publicaciones de corte filosófico, político y socioeconómico en forma de libros y artículos, Ana Santos, veterana participante en movimientos sociales y políticos portugueses, Elvira Souto, profesora de la Universidade da Corunha y Secretaria de EsCULcA, y, por supuesto, Alfonso Sastre, escritor e intelectual de referencia alrededor del cual nuestra asociación está constituida desde un principio.

Como complemento a las ponencias y debates, ofreceremos en la jornada inaugural de los *ASKEncuentros 2008* la lectura dramatizada de una breve obra de Alfonso Sastre, de título *Alfonso Sastre se suicida*, que por su contenido quedará muy bien contextualizada con las referencias que hemos elegido para los debates de este año. Para dicha dramatización contaremos con la participación del propio autor de la obra y con la de la actriz Zutoia Alarcia, habitual colaboradora de nuestra asociación.

Como colofón a la segunda jornada, el escritor, filósofo y profesor de la UPV Fito Rodríguez presentará la traducción al euskara que él mismo ha realizado de *Los últimos días de Emmanuel Kant*, obra teatral de Alfonso Sastre que en su día estrenó el Centro Dramático Nacional y que ahora publica en su versión vasca la editorial *Artezblai* en un tomo que incluye una introducción del propio traductor dedicada a analizar la propuesta kantiana de una política republicana no basada en el despotismo ilustrado, sino en la primacía de los derechos humanos capaces de cimentar la paz.

La despedida de la tercera y última sesión quedará amenizada por la actuación del cantautor de Nafarroa Fermin Balentzia, quien nos deleitará con una selección de sus canciones de acendrado sabor republicano.

Esperamos que este programa que hemos preparado os resulte tan interesante de seguir como estimulante para nosotros ha sido el diseñarlo y organizarlo. Os esperamos en Donostia, como de costumbre en el Koldo Mitxelena Kulturunea, los días 18, 19 y 20 de noviembre. Hasta entonces.

Xabi Puerta, coordinador de ASKE

www.aske.es
www.sastre-forest.com

ASKE - Alfonso Sastre Kultur Elkarteak
aurkezten du

# ZER ERREPUBLIKA?

## TopASKEtak 2008.
## Gogoeta eta eztabaida jardunaldiak

**KOLDO MITXELENA** Kulturunea - Donostia

**2008ko azaroaren 18a, 19a eta 20a**

### Asteartea, 2008ko azaroaren 18a - 19.00h

**Alfonso Sastre**, *Idazlea. Antzezlanak, saiakerak, poesia eta narratiba*

**Arnaldo Otegi**, *Filosofoa, preso ohia, legebiltzarkide ohia eta Batasunako bozeramaile ohia*

*Alfonso Sastre se suicida*, Alfonso Sastrerena
Zutoia Alarzia aktorearen eta Alfonso Sastre egilearen irakurketa dramatizatua; idazlea bere buruaren rolean ariko da

### Asteazkena, 2008ko azaroaren 19a -19.00h

**Alizia Stürtze**, *Idazlea eta Euskal Herrian espezializatutako historialaria*

**Carlo Frabetti**, *Idazlea eta matematikaria*

**Elvira Souto**, *Coruñako Unibertsitateko irakaslea eta EsCULcAko idazkaria*

*Emmanuel Kant azken egunak*, Alfonso Sastrerena
(Fito Rodríguezen itzulpena). Alfonso Sastreren *Los últimos días de Emmanuel Kant* antzezlanaren euskarazko bertsioaren aurkezpena. Fito Rodríguezek itzuli du eta idatzi dio hitzaurrea, eta *Artezblai* argitaletxeak argitaratu du

### Osteguna, 2008ko azaroaren 20a - 19.00h

**Santi Duñaiturria**, *Ekonomista, Kanpo Merkataritza aholkularia eta idazlea*

**Ana Santos**, *Medikuntza doktorea eta Portugalgo mugimendu sozial eta politikoetan ibilitako ekintzailea*

**Ángeles Maestro**, *Medikuntza doktorea, Ezker Batuko diputatu ohia eta CorrienteRojako gidaria*

*Fermin Balentzia errezitaldia.* Kutsu errepublikanoa duten abestiak, kantautore nafarraren eskutik

## Zer errepublika?

Aldizka, askotan 10 zenbakiaren multiploa izatea beste merituirik ez duten zenbait urteurrenekin bat (nahiz eta, ospakizun gogoa handia bada, 5 zenbakiaren multiploek ere balio duten), *Errepublika*ren gaiak, horrelaxe, bakarka eta biribilean esanda, aktualitatera jauzi egiten du, eta zenbait egunetan edo astetan, orrialdeak hartzen ditu prentsa idatzian edo minutuak telebistako eztabaidetan edo "zakarkeria tarteak", irrati tertulietan. Une seinalatuenetan, halako erakustaldiekin batera, txukun plastifikatutako liburuki edo faszikulu bildumagarriak ere argitaratzen dituzte, igandeko gehigarriarekin batera. Horrek esan nahi izaten du, egun edo aste horietan, baimena ematen zaigula errepublikanismoaz mintzatzeko eta etiketa horren azpian sar litezkeen balizko espazio politikoak irudikatzeko.
Guk, ASKE Alfonso Sastre Kultur Elkarteko kideok, definizioz eta hautuz errebeldeak garenez eta, ondorioz, data jakin batzuetako *nihil obstat*dun eztabaidak gustuko ez ditugunez, ez dugu urteurrenik ospatzeko ez premiarik, ez asmorik; are gutxiago Espainiako Bigarren Errepublikaren urteurrena, kontuan izan behar baita esperientzia politiko hartan ez zirela, inondik ere, guztiak argiak izan eta, aldiz, itzalak -eta batzuk ondo ilunak- ugari izan zituela. Ez dugu, beraz, halakorik behar, gaiaren inguruko gogoeta eta eztabaida gune bat sortzeko eta joan zen mendeko 30eko hamarkadan Penintsulan izandako esperientziari *errepublika* izena monopolizatzeko eskubidea ukatzeko.
Errepublikazale izateak, hemen, Euskal Herrian, eta orain, XXI. mendean, ez du Espainiar Estatuko historiako garai hura aldarrikatzearen sinonimo zertan izanik. Bigarren Errepublika hura 1939an amaitu zen, behin betiko, 36an kolpea eman zuten militarrek gerra irabazi zutenean. Era berean, ez du esan nahi aurrekoaren antzeko balizko Hirugarren Errepublika bat ezartzearen aldekoa izan behar denik. Zergatik ez pentsatu, aldiz, euskal errepublika batean? Edo zergatik ez imajinatu nolakoa izango litzatekeen edo izan beharko lukeen Euskal Estatu Errepublikar bat?
Dirudienez, testuinguru honetan, Errepublikaz mintzatzeko substantiboak ez zaizkigu aski. Pentsamendua zabaltasunez eta zehatz adierazi nahi badugu, izenondoetara jo beharra daukagu, gogoan ditugun eta pentsatzen ditugun gauzen esentzia ahalik eta zehazkien identifikatzeko eta lortu nahi ditugun eta aldezteko prest gauden eredu politikoak osatzeko.

Hortaz, gaiaren inguruko gogoeta baliotsuak entzunda eta haiez eztabaidatuta, identifikazio horretan aurrera egiteko, aurten, gure TopASKEten XIII. edizioan, honako hauek gonbidatu ditugu: Arnaldo Otegi, legebiltzarkide izana eta Batasunako bozeramaile ohia; Ángeles Maestro, Ezker Batuko diputatu ohia eta Corriente Rojako gidaria; Alizia Stürtze, Euskal Herriko historian espezializatutako historialaria eta idazlea; Carlo Frabetti, aspaldiko urteetan Madrilen bizi den italiar idazlea eta gure elkartearen lagun eta gonbidatu beteranoa; Santi Duñaiturria, ekonomista eta idazlea, filosofiaz, politikaz eta sozio-ekonomiaz hainbat liburu eta artikulu argitaratutakoa; Ana Santos, Portugalgo mugimendu sozial eta politikoetan ibilitako ekintzaile beteranoa; Elvira Souto, Coruñako Unibertsitateko irakaslea eta EsCULcAko idazkaria, eta, jakina, Alfonso Sastre, hasiera-hasieratik gure elkartearen ardatz eta erreferentzia izan den idazle eta intelektuala.
Txosten eta eztabaiden osagarri gisa, TopASKEtak 2008 hauen inaugurazio jardunaldian, Alfonso Sastreren *Alfonso Sastre se suicida* izenburuko antzezlan laburraren irakurraldi dramatizatua eskainiko dugu. Antzezlanaren edukiagatik, aurtengo eztabaidetarako aukeratutako erreferentziekin ongi ezkonduko dela aurrera dezakegu. Esandako dramatizazioan obraren egileak berak eta Zutoia Alarzia aktoreak parte hartuko dute; azken hau gure elkartearen ohiko lankidea.
Bigarren jardunaldia amaitzeko, bere garaian Espainiako Drama Gune Nazionalak estreinatutako Alfonso Sastreren *Los últimos días de Emmanuel Kant* antzezlanaren euskarazko bertsioa aurkeztuko du Fito Rodríguez idazle, filosofo eta EHUko irakasleak, berak itzuli du eta. *Artezblai* argitaletxeak argitaratutako liburu honek itzultzailearen beraren sarrera ere badakar, non Kantek eginiko proposamena aztertzen baita, alemaniar filosofoak, izan ere, despotismo ilustratuan ez baino bakea zimendatzeko gai izango ziren giza eskubideetan oinarritutako politika errepublikarra proposatu baitzuen.
Hirugarren eta azken saioa Fermin Balentzia kantautore nafarrak alaituko du, kutsu errepublikanoa duten abesti aukeraketa batekin.
Programa hau diseinatzea eta antolatzea akuilu izan da guretzat; neurri berean, zuentzat interesgarria izatea nahi genuke. Donostian izango gaituzue zain, ohi bezala, Koldo Mitxelena Kulturunean, azaroaren 18, 19 eta 20an. Ordura arte.

Xabi Puerta, ASKEko koordinatzailea

Organiza

ASKE
Posta Kutxatila / Apdo. 179
20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa)
Tfno-Fax: 943-333-383

Colaboran

Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura eta Euskara Departamentua